

# Nafarroa

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko urriaren 6a / VI. urtea / 199. zenbakia



Mota guztietako bitxikeriak aurki daitezke merkatu txikian.

JOXE LACALLE

Emauseko Traperoek 2.000 metro karratuko pabilioi berria erosi dute Sarasako poligonoan, 67 milioi pezetaren truke. Irailaren 22an, halaber, merkatu txiki berria zabaldu zuten Lizarran el-

## Merkatu txikiko bitxikeriak

karteko kideek. Iruñekoan bezala, hamaika bitxikeria aurki daitezke traperoek bildu, txukundu eta berriro erabiltzeko prest jaritzen dituzten traste zahar guztien artean.

**B**arry Gifford estatubatuarak dioenez, denok bizi gara amildegia erantzutean, baina gehienek ez dute beherantz begiratu nahi eta segurtasun sentazio faltsu batez ibiltzen dira munduan barrena autoa errepidetik atera arte, emazteak uzten duen arte edo hiltzailea supermerkatuan sartzen den arte. Jakin gabe pistola bat hartzen dugu egunero mesanotxetik jaikitzen garenean eta kalera ateratzen gara kargadorean bala bat besterik ez dagoela pentsatuz, baina badaezpada ere ez dugu begiratzen. Hartzen dugun erabaki bakoitza bala bat izan daiteke, gure bizimodua erabat alda dezake. Askok erre dute gauean azken zigarroa biharamunean

tabakorik ez zutela beharko jakin gabe. Bankura nahi genuena baino hamar minutu beranduago joateak salba gaitzake eta norbaiti amorraturik gaudenean esaldi okerra esateak depresiorik sakonenera eramanez ahal gaitu. Eroetxeak kargadorean bala bat besterik ez zegoela uste zuten lagunez beterik daude eta kanposantuetan zahartzarorako pentsioak eta aseguruak eginak zituzten hamaika gazteren izenak irakur daitezke. Agian ez genuke egun osoa beherantz begi-

### Metropoli forala

FELIPE RIUS



ratzen pasa behar, jakina baita amildegien erakarpena izugarria dela batzuentzat, baina ez legoke gaizki egin behar dugun bidearen benetako zabalera neurtzea eta ez ibiltzea autobiak bukaerarik izango ez balu bezala. Itxura lasaiko aita bortxatzaile bat izan daiteke, eta horrela gogorarazten digute teleberrietan, ondoko pisuan gorpu bat baino gehiago egon daiteke izkutaturik, eta patuak mozkorti batek gidaturiko kotxea jar dezake gure bidean kalea gurutzatzen ari garela. Eta

zeinek esaten digu guk, hiritar zintzook eta pakezaleok, ez dugula eztabaida baten erdian gure andregai laban batez hilko? Nola jakin oporretako amodioek ez gaituztela birus baten bidez infernura betirako bidaliko? Gifford-en pertsonaiek hiltzen dute, kasualitatez beharbada, amildegia bertan dute, baina noizean behin begiratzen dute eta lasterka ateratzen dira noraezean; guk, berriz, urrutiegi dagoen etorkizun bati begiratzen diogu amildegia ikusi nahi ez dugulako. Beharbada hori da diferentzia bakarra, baina ez gara ohartzen, eta egunero, gosalduek ondoren, pistolarekin hasten gara jokatzeko zenbat bala dituen jakin gabe.

### Pistola mesanotxean



## ERAKUSKETAK

**Laino artean** izenburupean Kontxesi Vicenteren grabatuak daude ikusgai Zizur Nagusiko Kultur Etxean. Erakusketa urriaren 28ra bitartean dago zabalik, astegunetan; 7etatik 8,30ak bitartean eta jai egunetan; 12,30etatik 2etara.

## IKASTAROAK

**Zizur Nagusiko** Udaletxeak plastika eta euskarazko antzerki tailerrak antolatatu ditu. Plastikako tailerra 4-12 urte bitarteko haurrei zuzendua dago eta antzerki tailerra 9-12 urte bitartekoei. Lehenengo ikastaroa Zizur Nagusiko Santa Kruz, 31 kalean egingen da eta bigarrena Kultur Etxean. Izena emateko epea urriaren 10era arte, asteartea, dago zabalik Zizur Nagusiko Udalan.

**Nafarroako** Antzerki Eskolan umeentzako (dramatizazioa eta txotxongiloak) zein helduentzako (antzerki teknikaren lehen pausoak eta ahotsaren moldaketa) tailerren matrikula epea oraindik zabalik dago urriaren 11ra bitartean. Izena eman nahi duenak eskolak San Agustin kalean duen egoitzara joan behar du.

## IBILALDIA

**Lur Adiskideen Nafar Elkarteak** (LANE) iganderako Lindux mendira ibilaldia prestatu du. Partehatzaileak goizeko 9etan aterako dira Tres Reyes hoteleko kafetegiatik. Joan nahi duenak 22-29-88 telefonora deitu.

## DANTZA

**Udazkeneko bira 95eko** ekitaldien barruan Altsasuko Aintzindari dantza taldeak dantzatzeko du bihar Arellanon. Ikuskizuna, 19.45etan izango da herriko pilotalekuan.

## ZINEMA

**Arrizabalagako** frontoian, Udazkeneko Bira 95eko egitarauaren barruan, 'Nell' pelikula eskainiko dute bihar. Emanaldia gaueko 9etan izanen da.

## KONTZERTUA

**Lesakan** iparraldeko Altikutarrak taldearen kontzertua dago bihar frontoian. Emanaldia gaueko 11etan izanen da eta sarrera 500 pezetatakoa (20 libera) da.

**Arazurin** Udazkeneko Bira 95eko egitarauaren barruan Pedro Miguel Aginagak eta Fernando Lopezek biolin eta biola kontzertu eskainiko dute igandean. Emanaldia 13.00etan izanen da herriko elizan.

## ANTZERKIA

**Marmol** Antzerki Ekoizpenak 'Leccion de italiano' antzezlan eskainiko du bihar Izaban. Antzezpena herriko zineman izango da 20.30etan.

## NAFAR KRONIKA

JON ALONSO

### Intimitatea

Zinez penagarria Ortega Canok Corellan emandako espektakulua, egindako erridikulua. Batez ere lehendakari izatear egon denaren herriko jaietan gertatu delako. Jakin bagenekien toreatzaile guztiek, inoiz edo behin, 'espantaren' bat

ondoren berriro argizko soinekoa jantzi duten toreatzaileei buruzko erreportaia, eta oso interesgarria zen Ruiz Miguel-ek, Antoñete-k eta Curro Vazquez-ek plazara itzultzeko arrazoiak ematen zuten azalpena. «Afi-sión» eta «gusanilloa» ahoz aho

nenean. Baina inork ez dezala pentsa toreatzaileei ausardia, gorringo biko pareta edo errespetoa ukatzen genizkienik. Gure kaxondeoa bestelakoa zen, eta Roberto Dominguez-ek saio hartan bertan eman zuen erantzunarekin laburbil liteke: nahi



jotzen dutela hirugarren mailako zezenplazetan, baina Corellan kokildu eta zezenari aurre egin ez izateak sentikortasun autonomiko txikia erakusten du.

Zezen jokua dela kausa egin daitezkeen eta egin egiten diren gogoeta eta eztabaida guztietatik aparte, aitortu behar da toreatzaileena guztiz mundu bitxia eta bere gisakoa dela. Duela gutxi telebistan eman zuten erretiratu

ibili ziren; are gehiago, profano baten begietan denetan dibertigarriena zena: «zezenarekiko intimitatea» falta zutela. Edonori burura dakizkiokeen makina bat txiste egin genuen zoriarekin intimitatearekin, batez ere Antoñete bezalako agure beneragarria eta tonelada erdiko pasatxoko adardunaren arteko intimitatea nolakoa zitekeen, zertan gauzatu zitekeen imajinatzen saiatzen gi-

dutena esatea daukate —esan zuen gutxi gora behera—, baina burutik sano dagon inori ez zaio okurrizten zezenetara itzultzea diru behar handia eduki ezean.

Hortaz, Ortega Canorena ez zen intimitate arazoa baizik izan; ezin zezenarekin intimitatea gozatu. Eta guk etxean entrenatzen zela uste. Edo agian gutxiegi ordaindu zioten. Norberak egin ditzala nahi beste txiste.

## ASTEKO PERTSONAIK



**Aurkene Zaldúa**  
Nafarroako Ikastolen Federazio burua

**A**urkene Zaldúak irailaren lehen hartu zuen Nafarroako Ikastolen Federazioko zuzendaritza. Aurtengo Nafarroa Oinez Tuteran ospatuko dela-eta, Zaldúak ikastolen mugimendua pedagogi laneko filosofia bat dela erran du, «heziketa kalitatean baitute beraien aktibo hobereana». Bere ustez, ikastolek zonalde ez eskaldunetan dituzten arazoak ez dira kontutan hartzen eta are gutxiago gurasoek haurrek euskaraz ikas dezaten egiten duten lan guztia. Aurkene, orain dela 24 urte jaio zen Iruñean eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan Enpresa ikasketak egin ditu. Postua deialdi publikoa bidez lortu du eta «familia ohiturari» jarraituz omen da ikastolen arduradun, bere ama ikastolako irakaslea baita.



**Miguel Indurain**  
Txirrindularia

**M**iguel Indurain txirrindulari ospetsuak Munduko Txapelketako banakako erlojupekoa irabazi zuen herenegun. Mundialeko zilarrezko eta brontzezko dominak irabazita bazituen ere, hau izan da urrea lortzen duen aurreneko aldia. Dena dela, oraindik ere igandeko proba nagusia gelditzen zaio. Kolonbiako lehiaketa hau prestatzeko, atarrabiara lau astez kontzentraturik egon da Coloradon. Indurain faboritua zen hasieratik, aurtengo denboraldian bikain moldatu baita erlojupekoetan: Tourreko biak irabazi zituen atarrabiarrak. Herenegun lortutako urrearekin, beraz, modu bikainean amaituko du urtea Indurainek. Izan ere, joan den uztailan bostgarren tourra irabazi zuen txirrindulari nafarrak.

## AHAZTU GABE! ....

### EKITALDI KULTURALAK



**Barañaingo** Udalak urriaren 'Latinoamerikari begirada' kultur erakustaldia antolatu du. Egitaraua Gobernu Kanpoko bi Erakunde antolatutako erakusketekin hasiko da. 'Mundua emakumeek mugitzen dute' Mugarik Gabek antolatutako erakusketa urriaren 13a bitartean egonen da zabalik Kultur Etxean. Bestea, 'Latinoamerika bere artisauen bidez' Medicus Mundik antolatu du eta urriaren 18tik 31ra arte egonen da aurrean aipatu tokian. Bi erakusketa hauekin batera, Mugarik Gabe Gobernu Kanpoko Erakundeak bi tailer antolatu ditu. Lehengoan, emakumea eta lanaz mintzatuko dira eta urriaren 10ean egingen da. Bigarrena, aldiz, urriaren 11an burutuko da eta emakumez eta biztanlegoaz solastuko dira. Latinoamerikako dantza desberdinei buruzko ikastaroak ere antolatu dituzte. Izena eman nahi duenak Udalera deitu behar du 26-83-43 telefonora. Era berean, musika emanaldiak izango dira Udal plazan; urriaren 17an 'Añoranzas' taldeak joko du, 19an 'Los arribeños' eta 'Melodias sudamericanas' eta 21ean 'Chevere' taldearen txanda izango da.

## ADI!

### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

### KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Bera

# Nafarroako abesbatzen topaketa

JON ABRIL / BERA

Berako Abesbatzak antolatuta, datorren ortzegunean, urriaren 12an, Nafarroako abesbatzen topaketa egingo da. Bertan, Nafarroako bostz abesbatzak kantatuko dute. Lesakakoa, Lizarrako Ereintza, Leitzako Asketa eta Etxarri-Aranazkoa izango dira beratarrekin batera ariko direnak eguerdiko 12.00etatik aurrera, Berako San Esteban elizan.

Kontzertua bi zatitan banatuta dago. Lehenengoan, eta mezaren barruan, abesbatza guztiak elkarrekin ariko dira. Sei kantu izango dira entzungai mezaren barruan, Beethoven, Haendel, Perosi, Madina eta Mozartenak.

Elizkizunak bukatu ondotik, koru bakoitzak, berak aukeraturiko bi abesti interpretatuko ditu. Lehenak, lesakarrak izango dira. Lesakako Abesbatza 1982. urtean sortu zen eta, nagusiki, euskal folkloreak kantuak abesten ditu. Mari Sol Perezen zuzendaritzapean ariko dira. Anduezen 'Salve Regina' eta Behobideren 'Nere etxea' dira lesakarrekin hautaturiko bi lanak.

Lesakarren ondotik, Lizarrako Ereintza abesbatza taularatu da. 1977. urtean Lizarrako ikastolako zenbait gurasoen ekimenez sortu zen taldea da. Juan Montesén 'Negra Sombra' eta Zubizarretaren 'Ama begira zazu' kantatuko dituzte Josetxo



Nafarroako hainbat abesbatza bilduko dira urriaren 12an Beran.

Arbeloaren gidaritzapean.

Hirugarrenik, Leitzako Asketa izango da San Esteban parrokiako koruan. Cossetoren 'Variazioni su canzone vasca' eta 'Arotzak erran dio' aukeratu dituzte leitzarrek Beran abesteko. Zuzendari lanetan, Beran jaiotako Batista Irazoki ariko da. Abesbatza hau denetan gazteena da, bai bere partaideengatik, bai berriena delako bere sorrerari dagokionean, 1989. urtean agertu baitzen.

Etxarri-Aranazkoek, Ratxmaninoven 'Bogorodize devo, ra- duisia' eta Javier Bello Porturen 'Soule' kantatuko dituzte Igor Ijurraren zuzendaritzapean. Orain dela 85 urte sortu zen talde honek 1972an bertze norabide bat hartu zuen, hainbat txapelketatan sari garrantzitsuak eskuratu.

Kantuan azkenak, beratarrek izango dira. Begoña Rudiren batutaren pean, Pablo Sorozabalen 'Gabilzen kalez-kale' eta

'Bigarren kalez-kale' abestuko dituzte. Beratarren taldea, musika eskolako gurasoen bidez eratu zen 1987. urteko udaberrian.

Egitarauari bukaera emateko, abesbatza guztiak elkarrekin, Verdiren 'Nabucco' kantatuko dute, Josu Goia zuzendari izanen dela. Errezital osoan zehar, gainera, Javier Perez de Azpeitia, aurtun 100 urte beteko dituen Nafarroako organo jole erromantikorik hoberena jotzen izango da.

## Iruñea

# Txantrea irratiak jai eguna antolatu du ekitaldi berriaren hasiera ospatzeko

IRUÑEA

Txantrea irratiak jada hirugarren urteari ekin dio aste honetan. Hori ospatzeko eta irrati ekimen hau auzokideei, entzuleei zein kideei hurbiltzeko jai eguna egingen dute bihar. Herri paella, gaiteroak, txistorrada eta kafe-kontzertua izanen dira, besteak beste, ekitaldi nagusiak. Biharkoa, beraz, entzuleek eta hizlariak elkar ezagutzeko aukera paregabea izanen da.

1993ko apirilaren 3an sortu zen Txantrea irrati Argibide elkartearen eskutik. Auzoko gertakariak eta ekitaldi buruzko informazioa plazaratzeko nahiz auzokideen iritziak jasotzeko asmoz ekin zioten proiektuari. Ordutik lagun asko mintzatu da Txantrea irrati mikrofonoetatik; besteak beste kazetariak, abokatuak, soziologoak, historialariak, auzoko elkarteak, gazte taldeak, kirola-

riak, musikariak eta auzoaren alde lan egin duten lagunak beren iritziak eta bizipenak kontatzen aritu dira.

Hasieran larunbatetan soilik emititzen bazuten ere, egun aste osoan zehar eskaintzen dituzte saioak, arratsaldeko sei etatik aurrera. Hori guztia, berrogeita hamar bat lagun lan gogorari esker lortu dute. Dani irrati kideak azaldu duenez, «irradiak jende askoren laguntza behar du, hizlari lanak ez ezik, margolari, igeltsero edota batzar bateko moderatzaile lanak ere egin behar dituzu». Hori gutxi balitz bezla, irrati tresneriak ordaintzeko finantzabidea ere lortzeko jardun behar dute guztiek. Dena dela, «merezki» duela uste du Danik.

Nuria ere bat dator bere lan-kidearekin, «batzuk besteak baino gehiago inplikatzeko dira, baina baturik gaude eta guztiok ilusio handia dugu». Ilusio ho-

rrekin egunez egun erronka berriei ekiten diete eta, ekitaldi honetan, adibidez, aurreneko aldiz euskaraz egingen dute saioaren bat. Izan ere, auzoan egindako inkestak argi islatu zuen auzokideek euskarari garrantzia handia ematen diotela.

Txantrea irrati kideek funtsezkoa jotzen dute prestakuntza, nolabaiteko ezagutza teoriko eta praktikoa beharrezkotzat hartzen baitute irrati aritzeko. Hori dela eta, urtero 'irradi tailerak' antolatzen dituzte, beren esperientziak eta eguneroko lanean ikasitakoa plazaratzeko. Irrati kideek beraiek eskaintzen dituzte orain 'irradi tailer' hauek, urte hauetan hartu duten esperientzia lagungarri baitzaie horretarako. Horrela, denon artean, komunikabidearen bitartez gogoak eta asmoak bultzatzeko balio duen ekintza aurrera eramatea lortu dute denbor laburrean.

## Garaioa

# Helduen 5. Ibilaldia ospatuko da igande honetan

IRUÑEA

Nafarroa Kirol Elkarteak antolatuta, Nafarroako Mendi Federazioaren Helduen 5. Ibilaldia ospatuko da igande honetan Garaioan, 50 urtetik gorako mendizaleentzat. Mendizaleak goizeko bederatzi terdiak aldera aterako dira, izena eman ondoren. Ibilaldiaren amaieran, bazkaria izanen da.

Nafarroa Kirol Elkarteak azpimarratzen duenez, arrakasta handia du ibilaldi honek mendizaleen artean eta urtero, 250 lagun inguru biltzen dira, «horietatik erdia baino gehiago, 50 urtetik gorakoak». Ibilaldi hau antolatzeko ideia, 1990. urtean sortu zen, Euskal Herriko Mendi Federazioak urtero herrialde batean ospatzen duen ibilaldia Nafarroako Mendi Ferdezioak Nafarroa Kirol Elkartearen bitartez gure herrialdean antolatu zuenean.

## Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta


# Txisterik hoberena

Gaixoa: «Barre egiten dudarik tripak min ematen dit. Zer egin dezaket?». Sendagilea: «Ez ezazu barre egin». Eskolaurreko estreinako kurtsoan nenbela, horixe zen nire klasean txisterik arrakastatsuenena. Bihurgunean derrapatzen duen marraskiloarena eta Jaimitoren txiste eskatologikoak ere gustatzen zitzaizkigun, baina, zalantzarik gabe, arestian aipaturikoa zen gure artean barre eta algararik handienak eragiten zituenena. Asmatutiko pasadizua zela uste genuen, gure irudikoz, mediku batek ezin zuen eta sekula santan horrelako ateraldi zentzugaberik izan. Oker genbiltzan. Horrenbeste aldiz horren zorionsu egiten gintuen txistea benetako gertakizunean oinarritua zegoen. Joan den egunean txisteko protagonista, zorioneko medikua, ezagutu nuen.

Kartzelan ematen diguten janaria, azken asteotako zutabeek argi eta garbi azaldu dutenez —barkatu gaia horrenbeste errepikatzea, baina, egia esanda, kontuak gero eta gehiago obsesionatzen nau—, ez da, prezisamente, munduko goxoa. Orain arte haren gustu txarra izan dut idazgai. Eragiten dituen kalteak,







Orain dela 50 urte kafe goxoa egingo zuen kafeontzi honen jabeak, zalantzarik gabe. Ez da nolanhikoa, gainera, lau katilu betetzeko adina kafe prestatzen duen kafeontzi *express* elektrikoa baizik. Bitxikeriazaleen gustukoa ere bada gaur egun, eta horregatik 10.000 pezetan saltzen dute Emauseko Traperoek. JOXE LACALLE

## Traperoak herrialdera zabaltzen

**E**mauseko Traperoek Iruñean duten merkatu txikian denetarik edo ia denetarik aurki daiteke bilatuz gero: orain dela 30 urteko garbigailu edo kafeontziak, berogailuak, irrati zaharrak, idazmakinak eta beste hainbat gauza. Lizarran ere merkatu txiki berria zabaldu zuten joan den irailaren 22an Emauseko Traperoek. Jose Maria Garcia Bresko koordinatzaileak «oso garrantzitsutzat» jo du egoitza berria zabaldu izana.

EDURNE ELIZONDO / IRUÑEA

Emauseko Traperoak elkar-  
tearen ibilbidea aski ezaguna da  
Nafarroako biztanleen artean, ez  
baita berria. Etxeetan sobra diren  
traste zaharrak bildu, konpondu  
eta Antsoaingo bidean laugarren  
zenbakian duten egoitzako mer-  
katu txikian edo Iruñeko Descal-  
zos kalean duten Triki-Traku  
dendan saltzen dituzte merke-  
merke. Baina Emauseko Trape-  
roen historia berria ez bada ere,  
elkartea osatzen duten 70 kideen  
ibilbideak urrats berriak eman  
ditu azkenaldi honetan.

Joan den irailaren 22an, hain  
zuzen ere, egoitza berria zabaldu  
zuten Emauseko Traperoak el-  
karteko kideek Lizarrako Yeri

Etorbideko 33. zenbakian. Orain  
dela urtebete sortutako asmoa  
dugu hau baina, hainbat arazo  
izan direla medio, gaur arte itxa-  
ron behar izan dute traperoek.  
Lizarrarekin duten harremana,  
hala ere, ez da gaurkoa eta hain-  
bat urte dira jada herri honekin  
eta Montejurrako Mankomunitate-  
arekin elkarlanean dabiltzala.  
Harreman hau, hain zuzen ere,  
iaz eta bost urterako sinatutako  
lan akordioaren bidez sendotu  
egin da. Akordio honen arabera,  
Montejurrako Mankomunitatean  
dauden zabor biltontzietako  
—ehun inguru— beira eta pape-  
ra jasotzen dute Emauseko Trape-  
roek, baita pisu handiko obje-  
tuak ere.

Emauseko Traperoek 500

Emauseko Tra-  
peroen merka-  
tu txikian ar-  
gazkikoa beza-  
lako aldirikari-  
tegiak ere aurki  
daitezke, beste  
hainbat bitxi-  
keriaren artean.  
Orain hamar bat urte-  
koa da eta  
merke dago  
salgai, 1.000  
pezeta baino ez.  
JOXE LACALLE





metro karratu inguruko lokala alokatu dute Lizarran eta bi zaitan banatu dute. Horietako batean, merkatu txikia antolatu eta bertan saltzen dira bildutako gauzak; bai altzariak, bai etxetresna elektrikoak, bai beste hamaika bitxikeria. Halaber, bildutako materiala erabiltzeko beste gela bat ere moldatu dute Emauseko traperoek. Bertan, merkatu txikira eraman aurretik konponketa txikiak egin eta txukundu egiten dituzte gauza guztiak. Jose Maria Garcia koordinatzailearen ustez, halako tailerrak oso garrantzitsuak dira bertako langileentzat: «Gu ez gara profesionalak eta lantegi hauen bidez esperientzia hartzeko aukera badaukagu».

Orain dela gutxi zabaldu badute ere, Emauseko Traperoak orain arte merkatu txikiak izan duen harrearekin kontent dira, eta dagoeneko jende ugari hurbildu dela azpimarratzen du Jose Maria Garcia Bresok elkarteko koordinatzaileak. «Lizarrako biztanleek, behintzat, hemen gaudela badakite».


Lizarrako merkatu txikia zabaldu berri badute, Sarasako poligonoan ere aurki egoitza berria izanen dute Emauseko Traperoek. Izan ere, 2.000 metro karratuko pabilioia erosi dute bertan, 67 milioi pezetaren truke. «Orain arte 500 metro karratuko egoitza batean paratu behar izan dugu bildutako guztia, eta bertan manipulatu, baina oso leku txikia da. Pabilioi berriari esker, beraz, gero salduko ditugun produktuen kalitatea hobetu nahi dugu, eta saiatu gauza gehiago konpontzen berriz erabilgarriak izan daitezten. Pabilioia garestia da baina baiokor gara eta aurrera aterako garela uste dugu». Halaxe azaldu digu Garcia Bresok. Egoitza berria azaro aldera zabaltzea da Emauseko Traperoen asmoa. Gaur egun, Nafarroako zazpi mankomunitaterekin dute akordioa Emauseko Traperoek, eta akordio horien bidez papera, beira eta beste hainbat material birziklatzen dituzte. Sarasako poligonoko pabilioi berri honen bidez, hain zuzen ere, orain birziklatzen duten kopurua —biltzen dutenaren % 70 inguru— igo nahi dute.

Sarasako pabilioiak balio dituen 67 milioi pezetak ordaindu ahal izateko, Nafarroako Parlamentuko iazko eta aurtengo aurrekontuetatik dirulaguntza jaso dute Emauseko Traperoek, 32 milioi pezeta denetara.

Egungo garbigailu automatikoen aurrekoa da argazkikoa. Zentrifugatzen ez badu ere, lehorgailu ederra dauka. Arropa oraindik eskuz garbitu beharrean dagoenak, duela 30 bat urteko garbigailu hau 10.000 pezetaren truke erosteko aukera du. JOXE LACALLE



Orain dela 40 bat urte punta-puntakoa zen argazkian ageri den petroliozko berogailua. Gaur egun, berotzeko ez bada ere, bitxikeria modura ez zaio ziurrenik eroslerik faltako. 7.000 pezeta balio du berogailu zaharrak. JOXE LACALLE



Egungo teknologiak baztertuta, argazkian ageri den orain 40 urteko josteko makina bezalako hamaika ailegatzen dira Emauseko Traperoen egoitzara. Bitxikerien bila hurbiltzen diren artean arrakasta galanta dute. Argazkikoak 6.000 pezeta balio du. JOXE LACALLE



## Kritikontzi

## Ustekabeko bidaia

XANTI BEGIRISTAIN

**I** lunabarreko bederatzi t'erdia ziren alde-alde. Bernardo Atxagaren poesia errezitaldia entzun ondoren etxe aldera nindoan gurgildun aulki elektronikoaz Pio XII.a etorbidea eta Gaztelu ingurubidea elkartzen diren parean...

«Halako batean non ikusten dudun lau udaltzain niregana heldu direla, furgoneta hantxe bertan, lehentxeago aparkatu ondoren. Dagoeneko inguraturik naukate... oinez ezin naitzela ibili konturatu direnean aida batean ireki dute furgonetaren atzeko atea eta hortxe sartu naute lauen artean airean gurdixka eta guzti. Hiru, aurreko aldera joan eta laugarrena nirekin gelditu da, 'mugi' ez nadin. —Alajainkoa! Bai gelaxka txiki eta iluna!—, izan ere, erabat itxia baita; alde batzuetan zulotxo nimino natzuk baino ez ditu. Zer edo zer ikusi ahal izateko gurdixkoaren argiak piztu behar izan ditut. Honelaxo behatu ahal izan diot aurpegia zaindariari.

Kilometroren bat egin ondoren furgoneta gelditu eta era berean atera naute, airean, baina oraingoan atzeraka. Inolako tratu txarrik eman gabe zorionez, baina lau udaltzain gazteak serio-serio gurdixkaren beste horrenbeste izkinetan nituelarik, erdi airean eta erdi arrastaka, ondoko eraikinean barneratu naute, ez gutxi kostata. Behin barruan, igogailura bultzatu naute, eta goian ginela, gela bateraino eraman naute. Berehalaxe ikusi ahal izan ditut amatxo, izeba eta azken honen bi lagun harridura aurpegiak...»

Bai jaun-andreak! Ongi ulertu duzue. Lau udaltzain haiek egin zutena ni etxera eramatea baino ez zen izan. Eta zergatik? Ba, oso erraza da; izan ere, gurdixka elektronikoak erabiltzen ditugunoi mantenimendu zerbitzu txar eta eskasa eskaintzen baitigu



gizarte honek, Iruñean behintzat, eta horrexegatik sarri samar tokatzen zaigu antzeko gorabehera eta kalamidadekeriak bizitzea.

Gure egoera zein den kontatuko dut alde-alde hobe uler dadin: gurgil aulki elektronikoak, Iruñerrian, lau edo bost lekutan gutxienez eros daitezke batere arazorik gabe, baina eragozpenak beranduego iristen dira, matxurak dandenean, hain zuzen ere. Eta hauxe da gertatzen dena, hots, batzutan piezarik ez dutelako, beste batzuetan sistema elektronikoaren eskema falta delako, teknikari egokirik ez dagoelako, edota, azkenik, gurdixka hori denda horretan saldu ez dizutelako; kontua da, erabiltzaileok maiz baino sarriagotan 'zintzilik' uzten gaituztela.

Irakurleak ideia zehatzagoa har dezan esan beharko dut, horrelako gurdixkoak erabiltzen daramadan azken ha-

mar-hamabi urte hauetan, dagoeneko hogeit bat aldiz hondatu zaidala eta batzutan, aste bete, bi edo hiru kosta zaie konpontzea. Beste batzuetan, hilabete osoa, bi hilabete... Neronek errekorra bi hilabete eta hiru astetan daukat. Ah!, eta ez pentsa batera merkeak direnik konponketa 'ospetsu' horiek, ez! Azken urte honetan berrehunen bat mila pezeta joan zaizkit konponketa eta materialean. Eta jakina, Nafarroako Ongizate Sailak ez dit inolako dirulaguntzarik ematen lan egiten dudalako eta errenta per capita jarrita dagoen kopuru batetik pasatzen delako. Gero, errenta aitortpenen % 14 itzultzen digute.

Esan bezala, gurdixka duela aste bat eraman zidaten Bartzelonara 'pasatzera'. Auskalo noiz itzuliko didaten eta zenbateko 'oparitxoarekin'.

Laburbilduz: bai, biziengatik kexatzen gara!

## Klasiko bitxi arront klasiko

Joxemiel Bidador

## Erribeheratik adeitasunez

Frai Zelestinoaren euskara ikasteko metodoa euskaldun oso gehien lortu dituen da.



Herribeheratik kronika igortzeko prest geundeke baldin eta erribehera bera kronikagarria balitz betiere xoko hontarako. Eztakigu bestenaz hortan ea gaudenentz. Halerik ere, xahutu beharko aitzin gogapen ez jakintsu hergelak oro, eta judategi logalek sorka atondu burutazio trinko urriak ordenatzen saiatu beharko. Estonatzekoa. Egunak igau arau euskal usai freskoa bermatzen ari da nihorrena bide ez den lur eremu zabal aizeak astindutako honetan. Alta nafar erberea modan dela iduri. Ez omen da gutiagorako. Hilak hamabostean, noiz edo noiz ere, garaia bazelako nonbait, euskaltzale ororen topaleku izanen dugu hegoaldeko merinaldeko hiriburua bertako Argia ikastolari esker. Bihoaz hemendik gure desiorik hoberenak mirestasunik irmoenarekin batera. Kontura hartzerako kronikagarri gerta ote? Ez oraino bederen.

Akaso euskal kulturagintzan haro frango ez dituzkegu Ebro aldeko berri honek eman uztak, agian, are gutiago ezagunak, apika. Egia esanda guti dezke, baina ez horregaitio isilpean gorde beharrekoak. Sori bekit beraz barde kronikagarritasuna sendotzea adibideren bat aipatuz. Obenduen mendean Zelestino Peralta Lapuerta gisan ezaguna izan zen Zelestino Maria Kaparrosokoa. 1879. urteko maiatzaren seian sortu zen aipa herrian, eta kaputxinotarren jantzi nabarrak izan zen bezituzt hemeretzi urteak bete bezain fite. 1905.ean apetzuz zen, segituan Nafarroan barna urte mordska emateko. 1921. urteko beltzilan Txile-Argentinako komisiariadara joatea egokitu zitzaion. Ordurako jada bazituen bere lan gehientsuenak izkiriaturik, eta **ordo minor** delakoaren hiru botoek osoki gogaitu zutela omen, habitua eseki zuen 1928. urteko lotazilan, abendurik ez baitzen orduan. Handik hutira, zilar herrian bertan zendu zen.

Auñamendi argitaletxearen burute sorki argitsuak ziren Estornes Lasa anai izabarren uste makalean, Frai Zelestinok ondu euskara ikasteko metodoa gehien erabilia izan ezpada, bai euskaldun oso gehien lortu dituen bada, horren aiserrez bainan horren etekin nabari. Aldez aurretikan, konjugazioari buruzko beste lan bat utzia zigun, *Las conjugación vasca. Sumario de lo más preciso y práctico de la conjugación del euskera*, Bartzelonako Caspe kaleko Perelló Vergés argitaletxearen eskutik karrikaratu zena 1914.ean. 93 orrialdetako idazki hau Arrigarai izengoitiak sinaturik ageri zen. Ezta batere zaila zergatia asmatzen. Alabainan, bere lanik nagusia bost urte beranduego Murtziako Totonan agertu zena dugu, *Euskal irakaspidea, o sea, gramática del euskera dialecto guipuzcoano* alegia. Dena dela, Arrigarairen **dialecto guipuzcoano** hau ez da inolaz ere giputz mintzo soila. **Bascón** deitura asmatu zuen gipuzkera, lapurtera eta

nafarrera bere baitan hartuko lukeen zerbait izendatzeko. Beraz, ez litzateke lur eta zur harrituta geratzeko bere idazlerik gogokoena Mendiburu zela aditzen baldin badugu. Aita Donostiari eskeini —**Donostiar Joseba Andoni aba gure abendaren eresleri adoretzu ta kartsuari**— eta Cartagenako gotzaiarengandik oneritzia jaso zuen liburuki honek edizio bat baino haboro izan zituen naski, baina lehenbizikoak lortu arrakasta etzen harzara errepikatuko. Ortezko Georges Lacombek honela zioen lan hontaz: «*Etil est incontestable que l'étudiant pourra tirer profit de ce nouvel ouvrage, dans lequel il trouvera, à côté de quelques théories qui ne le prépareront peut-être pas à l'intellection de la linguistique contemporaine, un très grand nombre d'exercices variés dont la lecture lui permettra, dans un assez large mesure, d'aborder la littérature guipuzcoane. Les linguistes eux mêmes qui s'adonnent à l'euskera devront avoir dans leur bibliothèque ce livre de M. Arrigarai: ils y puiseront quelques faits nouveaux*». B. Ataun fraidekideak paratu 1932. urteko bigarren edizioak hartzean ez zuen arrakastaren arrazoia hitanoaren sartzea genuke. Ikasleak traukil xamar zerraien tratamenduan gaineko azalpenei, eta ondorioak murrizterakoan, erabilpena jeitsi zen guziz. Argitalpen hau, bere *Itzultzeak, claves de tema* izenburuko ariketa kaierrarekin batera, Donostiako Garibai karrikako San Ignazio argitaletxearen eskutik atera zen, hirugarrena bezala, 1971.ean. Auñamendiren moldeetatik elki zela espreski.

Oraino hirugarren lan idatzi bat agertarazi zuen Kaparrosokoa mende hontako bigarren hamarkadan, Bartzelonako Sanmarti argitaletxean, *Lenengo irakurbideak aurrei euskaraz irakurtzen irakasteko*, egileak esaten zuen legez, *euskaltzale batek aur euskaldunen onarako argitaratzen duena*. Eztakigu Kaparrosoko seme honi nondik zetorkion euskararekiko grina, kaputxinotarrek eragindako zerbait izan ote zen, baina bere irakaspidean testigantza bat badakar honen argigarri litekeena: 1913.ean, lehenbiziko karlistadan (1834-1839) Tafallan bertan euskara barra barra entzun zitekela zioen 94 urteko Tuterako zahar bat hil zen, guzi horren berri zehatzak noizbait gure Arrigarairi eman zizkiona. Hortaz ere, Bonaparte printzearen lagunkidea zen Uriarte bizkaitararen aitizineko mende erdialdeko lekukotasuna badugu: «*Leoz que dista tres leguas de Tafalla, no es distrito sino un lugar pequeño del valle de Orba, o Ilzarbe, en Navarra. El vascuence que en este valle de Orba se habla es idéntico al del valle de Aribre y Ulzama, pero más castellanizado*». Beraz, hemendik aitzina, eta hau guzia ikusirik, Masadetatik behetiko lurrek eskeini kronikagarritasuna ziurtaturik gera dakigukela onartu beharko.



■ Euskadiko Taldekako Ligako partida, 1994-1995 denboraldian jokatu.

Carlos Pastor (Irungo La Salle) — Pedro María Zabala (Bilboko Rey Ardid).

1.e4,c5; 2.Zf3,Zc6; 3.d4,d4; 4.Zd4,Zf6; 5.Zc3,g6; 6.Zc6,d-c6.

Zaldiaren peoiak jateak ez zuen ezer konpontzen (e5, Ac4 eta Df3 ekimena baitzeterren).

7.Dd8,Ed8; 8.Ac4,Ee8; 9.f3,Zd7; 10.a4,Zc5; 11.Af4,Ag7; 12.Ae3,Ae6; 13.Ae2,b6; 14.a5,Gb8; 15.b6,b6; 16.o-o,f5.

Defentsa irekitzea onartu dute, jokoa zabaldu nahian.

17.Ga7,Ef7; 18.f5,f5; 19.g4.

Erregearen kili-kolo posizio horri eraso egiteko asmoz.

19....hG-d8; 20.f5,Af5; 21.Ze4.

Toki ona. Beltzen ezin dute turkatu, gazteluari bidea ez ematearren.

21....Ab2; 22.Ac4 xa,Ee8; 23.c3.

Alfilak ditu orain arazoak. Posizio oso latza dute beltzek.

23....Ga8.

'Gd7' irtenbidea hobea zen.

24.Zf6.

Beltzen suntsipena geldiezina da. Ikus koadroa.

24....f6; 25.Af7 xa,Ef8; 26.Ah6 xa mate.

Txuriak oso sarkorrak izan ziren, barkatu gabe. ■





**I**raila izan ohi da nekazariak gehien espero duten hilabetea. Urte osoan zehar lana gogor egin ondoren, orduantxe jasotzen dira fruituak, eta Nafarroa erdiak uzta biltzeari ekiten dio. Luralde honi izen handiena eman dieten ardoa eta piperra —pikillokoa— batez ere. Iragarpenek diote kalitate onekoa izango dela aurtengoa.


## Uzta garaia

A.B. / IRUNEA

Gutxi falta da Nafarroa erdiak urte osoan zehar buruan duen garaia amaitu dezan: uzta bilduxea da, behintzat izena, fama eta dirua ematen duten ardoa eta piperrari dagokienez. Biak elkarrekin egin beharrekoak, garai berezuan, eta bete-betea ari dira zeregin horretan Iruñetik beherako alderdi gehienetan. Urte osoko lanaren azken ekitaldia da uzta biltzea, ez akaso garrantzitsuena, baina bai poz handienak ematen dituena. Eguraldiak —kapritxoso horrek— urtean zehar izan dituen gora-beherak eta berezitasunak ezinbestez markatuko dute ondoren bilduko denaren kantidadea eta kalitatea, eta aurtengoa iazkoa baino txikiagoa izango da bi produktuetan: mahats bilduaren kopurua % 16an jaitsiko da, eta piperrarena iazkoa baino % 35 txikiagoa izango da. Horri esker, kontserbagileek gordeta duten produktua aterako da merkatura, eta aurreko urteetako ekoizpen handiek bete zituzten tegiak hustuko dira zerbait.

Mahatsa biltzeko garaiak aldatetako tokian tokiko. Irailaren hasieran hasten da Lizarrerriko hainbat herritan, baina Izarberbarreko eta Erriberako beste batzuetan irailaren 25ak markatu ohi du guraizak hartu eta sorbalda makurtzen hasteko eguna. Urte osoan zehar euren teknikariak egiten duten segimenduari esker, Nafarroa Jatorrizko Izendapenaren Kontseiluan eta Nafarroako Mahastizantzaren eta Mahastigintza Zentruan (EVENA), badakite uzta polita dela, kalitate apartekoa izango duela ardoak. Jakina, mahats guztia bilduta eta gero, azaroaren erdian ardoak bereganatzen dituen ezaugarriak ikertu arte itxaron beharko dute datu zehatzak eman ahal izateko, baina badira baikortasunerako zenbait datu.

Udazkena oso ona izan zen, eta udaberriak tenperatura altuak izan zituen. Horri esker, lorea berehala eta indartsu ateratu zen, eta horrek ziurtatzen zuen, nolabait, produkzio altua. Apirilean eta maiatzean izan ziren izotzaldi batzuek aurrikuspen onak zapuztu zituzten nolabait, lore batzuk galdu zirelako, baina ez uzta kantitate nabarmen murrizteraino. Gainera, ur gutxi bota du aurtengoa, eta ez dira gaixotasunak izan, eta abuztu aldera tenperaturak jaitsi zirenez, mahatsak garrantzitasun puntu espeziala eskuratu zuen. Oro har 64 milioi kilo mahatsa aterako da Nafarroa Jatorrizko Izendapena duten alderdietako mahastietatik —14.100 Ha.—, nahiz eta iaz



Uzta garaia hasi da Nafarroako alderdi gehienetan.

**N**ahiz eta iaz baino hektarea gutxiago izan, 64 milioi kilo mahatsa aterako da Nafarroa Jatorrizko Izendapena duten alderdietako mahastietatik —14.000 Ha.—.

baino hektarea gutxiago izan. Hori azaldu daiteke ekoizpen handiagoa ematen duten hektarea berriak landatu direlako. Hauei gehitu egin behar zaizkie Errioxa jatorrizko izendapena duten mahastiak —beste 4.500 Ha.—, Biana, Bargota, Aras, Andosilla, San Adrian, Azagra, Mendabia eta Sartagudan banatuta.

Kalitate handikoa eta aurreko urtean baino gutxiago = prezio

**P**iperra ohi baino txikiagoa ateratzen ari da, hotzak ximurtu egin duelako, baina oso berezia izango da, kalitate onekoa, eta ezohikoa batzuen ustez.

altuak. Lehendabizikokalkulu arbera, garnacha barietateko ardoa —gehiengoa Nafarroan— 70 eta 75 pezeta bitarteko prezioan salduko da —iaz 60 pezeta—, eta tenpranillo motakoa 85 eta 90 bitarte —iaz 55—. Cavernet motakoak 110 pezeta salduko dira.

**PIPERRA ERE GUTXIAGO** Piperrari dagokienez, irailaren erdi aldera hasi zen biltzea, eta bi hilabetez edo luzatuko da, eguraldiaren arabera. Aurtengo uzta, ardoarenarekin gertatu den bezala, iazkoa baino txikiagoa izango da, baina zaila da arrazoiak zeintzuk izan diren zehaztea. Batzuen ustez, azkenotan egin duen hotza izan daiteke, duela gutxi arte oso landare itxurosoak ikusten zirelako baratzetan, baina kontuan hartu behar da gutxiago landatu dela aurtengoa. Azkenean, milioi bat kilo bilduko dela uste dute Jatorrizko Izendapenaren Kontseiluan. Oro har, 201 Ha. erabiltzen dira horretarako, zortzi herritan banatuta —Andosilla, Azagra, Karrik, Lerin, Lodosa, Mendabia, San Adrian eta Sartaguda— eta 400 nekazari eta 13 kontserbagilek emana dute izena kontseiluaren barruan. Nekazarien eta kontserbagileen artean bezala, kopuru diferentek dira oso komertzializazioa egiten duten lantegien artean. Iaz bildutakoa —1.678.280 kilo— horrela banatu zen: bost enpresak 50.000 kilo baino gutxiago saldu zuten, hiruk 50.000 eta 100.000 bitarte, bik 100.000 eta 250.000 bitarte, eta hiruk 250.000 baino gehiago.

Kalitatea, baina, ona izango dela iragartzen dute teknikariak. Piperra ohi baino txikiagoa da, hotzak ximurtu egin duelako, baina oso berezia, «ezohikoa» batzuen ustez. Ardoarekin gertatzen den ez bezala, prezioa iazkoaren antzekoa izango da, kilo erdiko kontserba-poto 450 eta 500 pezeta bitartean komertzializatuko baita, eta ia produkzio gehiena Euskal Herrian salduko da.

Aurtengoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin (NUP) batera, potoretan kontserbatzeko teknika berria ikertzen ari da kontseilua, eta lehendabiziko emaitzak jasotzekotan daude orain. Aldaketa funtsezkoena da piperra lehorrean kontserbatzeko litzatekeela, eta ez uretan orain arte bezala. Teknika berri honek produktuaren berezko ezaugarriak aldatzen ez baditu, jatorrizko izendapenaren barruan dauden kontserbagile gutzietan erabiliko litzateke aurrerantzean. Nolanahi ere, eskuz egiten den prozesuak ez luke aldaketarik izango.



# «Musikarako zaletasun handia dago Nafarroan»

EDURNE ELIZONDO / IRUÑA

Pablo Sarasate Nazioarteko III. Biolin Lehiaketa egin berri da Iruñeko Gaiarre antzokian, irailaren 17tik 24ra bitartean. Ara Malikian Libanoko 27 urteko gazteak eskuratu du aurtengo lehen saria. Lehiaketa honetaz mintzatu da EGUNKARIA Tomas Yerro Kultur Zuzendaritza Nagusiko buruarekin.

**EGUNKARIA.**— Lehiaketa egin ondoren, zer-nolako balorazioa egiten duzu aurtengo ekitaldiari buruz?

**TOMAS YERRO.**— Oro har, eta

**EGUNKARIA.**— Iruñean, Pablo Sarasate Biolin Lehiaketarekin batera, Julian Gaiarre Kantu Txapelketa ere bada nazioarte mailakoa. Nola sortu zen lehiaketa hauek antolatze-ko ideia?

**YERRO.**— 1987-1991 bitarteko legegintzaldian sortu zen ideia da hau. Nafarroako Gobernuak eta Kultur Departamentuak Nafarroan hain herrikoia den musikaren alorrean zerbait antolatu nahi zuten. Garai hartan, Jose Maria Forque zinema zuzendaria zebilen Nafarroa aldean Julian Gaiareri buruz-

zear hainbeste jo baina oso gutxi ezagutzen den konpositore nafar honen irudia zabaldu eta jakinarazteko asmoz sortu zen. Lehiaketa hau ere bi urtetik behin egiten da, lehiaketa biak txandakatur.

**EGUNKARIA.**— Hala ere, nafar gutxi hartzen dute parte lehiaketa hauetan.

**YERRO.**— Halaxe da, bai. Egia erran, nahiz eta herrietako musika eskola edo Iruñeko bertako Pablo Sarasate Musika Kontserbatorioaren bidez heziketa asko landu, musikari nafarren kalitatea, oro har, ez

taldeak gutxitan etortzen direla, baina hori azaltzeko badago arrazoi bat baino gehiago. Izan ere, halako kontzertuak antolatzea oso garestia da, eta Iruña edo Nafarroan, gainera, ez dago azpiegitura egokirik. Baina, bestalde, Nafarroan kontzertuak antolatzen ez direla ezin da erran, ez baita egia. Santa Cecilia Kontzertu Elkarteak, Elkartea Filarmonikoak eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoak, adibidez, euren programazio finkoa dute urtero. XX. mendeko musikari edo organo musikari buruzko zikloak ere antolatzen dira, baita beste hainbat kontzertu berezi ere.

**EGUNKARIA.**— Zer-nolako atek zabaltzen dizkio Pablo Sarasate Nazioarteko Biolin Lehiaketak irabazleari?

**YERRO.**— Ate ugari, zalantzarik gabe. Lehenik eta behin, irabazleak eskuratzen duen saria hartu behar da kontuan, milioi t' erdi pezeta hain zuzen ere. Diruaz gain, hamalau kontzertu eskaintzeko aukera ere irabazten du. Baina hori baino garrantzitsuagoa, lehiaketak biolin jolearen heziketan duen eragina da, ez baita gauza bera kontzertu batean jo edo halako lehiaketa batean parte hartu. Lehiaketan gehiago ahalegindu behar dira musikariak, hoberenak izateko. Azkenik, epaimahaiko kide diren biolin jole ospetsuak ezagutu ahal izatea ere aukera polita da partehartzailerantz.

**EGUNKARIA.**— Biolin lehiaketarekin batera, Pablo Sarasateren obra guztia biltzen duten disko konpaktuak aurkeztu zituzten orain bi aste. Santa Cecilia Elkartearena izan da ekimena baina Principe de Vianak ere parte hartu du RNEko zigiluak kaleratu duen lan honetan. Zer deritzozu?

**YERRO.**— Oso pozgarria izan da. Izan ere, 1940. urtean sortu zenetik, ondasun historiko, artistiko eta kulturala berreskuratuz, kontserbatu eta zabaltzea izan da Principe de Vianaren helburua. Pablo Sarasateren lana bildu ondoren, bere lanen edizio kritikoa prestatzen ari gara orain.

## Tomas Yerro

KULTURA ERAGINTZA ARLOKO ZUZENDARIA



SOSLATA

### Musika eskolan bultzatu

Azken urteak Kultur Eragintza Arloko arduradun izan ondoren, Kultura zuzendari nagusi izendatu zuten joan den abuztuaren hasieran Tomas Yerro. Bere ardurapean, hain zuzen ere, Pablo Sarasate Nazioarteko Biolin Lehiaketaren hirugarren ekitaldia egin da irailaren bigarren erdialdean. Tomas Yerro kontent dago aurtengo ekitaldi honen emaitzekin eta, batez ere, epaimahaiko kideek bezala, partehartzailerik kalitatea azpimarratu du. Bere ustez musikarako afizio handia badago ere, eskoletan bertan bultzatu behar da haurren artean. Bestalde, aurtengo lehiaketan lehen aldiz martxan jarri den esperientzia baten arrakasta nabarmendu du Yerrok.



Kultur Zuzendaritza Nagusiko buru da Tomas Yerro.

ikuspuntu ezberdinak aintzat hartuz, balantze positiboa egin behar dugu. Mundu osoko txokoetatik etorri dira partehartzailerik eta epaimahaiko kideek nabarmendu dutenez, kalitate handikoak izan dira guztiak. Kritikak ere epaimahaia iritzi honekin bat egin du. Bestalde, nahiz eta oro har lehiaketan zehar ikusle fidelak izan, finaleko saioetan edo Takashi Shimizuk Pablo Sarasate Orkestrarekin batera konpositore nafararen omenez irailaren 17an eskanitako kontzertuan, ikusle gutxi izan zela erran beharra dago. Hori alde batera utzita, hala ere, balantzea positiboa da.

«Heziketa asko lantzen bada ere, musikari nafarren kalitatea ez da oraindik halako lehiaketetan parte hartzeko bezain ona».

ko filmea egiteko asmoz. Filme horren protagonista, gainera, Jose Carrersek izan behar zuen. Abeslaria, Gobernuaren asmoen berri izan bezain pronto laguntzeko prest agertu zen, eta horrela abiatu zen lehiaketa. Urtero baino, bi urtetik behin egitea komenigarriagoa zela iruditu zitzaizkien antolatzaileei. Pablo Sarasate Lehiaketa, halaber, munduan

da halako lehiaketetan parte hartzeko bezain ona. Hasierako urratsetan gauden arren, hala ere, oinarria eta zaletasuna egon badaude, denbora baino ez dugu behar.

**EGUNKARIA.**—Kontzertu programazioa Nafarroan, bestalde, ez da oso zabala. Zer dela eta?

**YERRO.**— Egia da nazioartean ezagunak diren musikari edo

P A N E  
LUCRANDO

ZALDI EROA

